

'Bi urte, lau hilabete eta egun bat' intsumisioaren inguruko dokumentala izanen da Altsasun / 5

Tamaina handiko hondakinak egoki kudeatu beharraz gaztigatu du Mank-ek / 5

Euskaraldian 2.171 sakandar parte hartzen ari dira, 1.760 ahobizi eta 411 belarriprest / 6

30 gazte baino gehiago hasi dira Dantzaleku Sakanarekin korrika / 12-13

'Txor Txor' bakarrizketa "erronka" bat izan da Xabier Artieda aktorearendako / 14

Samurtasuna eta nostalgia

'Bi urte, lau hilabete eta egun bat' intsumisioaren inguruko dokumentala mustu du Lander Garrok. Derrigorrezko soldaduskari uko egiteagatik kartzelan sartu zituzten milaka gazte Nafarroan, tartean Sakana Antimilitarista Taldeko kideak

Erkuden Ruiz Barroso SAKANA

"Ez da galtzen. Hori esaten da bizi osorako dela. Sentimendu bat da. Gauza askotan intsumiso sentitzen zara. Inposatuta etortzen diren gauzen kontra borrokatzen dugu". Mañu Navarro Altsasun bizi den lizarragatarra intsumiso izan zen. Eta da. 1993 eta 1994 urteen artean preso izan zen, Iruñeko kartzelan, Sakanako hainbat intsumisorekin batera. "Lagun talde bat sartu ginen, talde bezala, eta horrek babestu gintuen kartzelaren sistema zapaltzaile horretatik".

Haien delitua derrigorrezko soldaduska egin nahi ez izatea izan zen. "Nik oso argi neukan soldaduska ez nuela egin behar". Mutiko gazteak, urte batez, "eta hori gure garaian, aurretik urte eta erdi eta bi urte ere pasatzen zituzten soldaduskan", etxera bila joan eta "hiltzen ikastera" Cadizera edo Ferrolera eramaten zituzten. Soldaduskak arazo asko sortu zituela azaldu du Navarrok: "Herrietan entzuten zen: Mutiko hau oso jatorra zen, soldaduskara joan, eta makurtu zen. Bada go jendea oso gaizki pasa duena, depresioarekin egon dena eta bere buruaz beste egin zuena ere". Intsumisioaren mugimendua soldaduskaren desagerpenaren alde borrokatu zen. Sakanan mugimendu indartsua izan zen: "Beti egon da soldaduskaren aurkako pentsamendua. Nik behintzat gaztetan horrela nabaritu nuen".

Zor historikoa

Lander Garro ere intsumisioa izan zen. Gaur egun kazetaria, idazlea eta dokumentalista da, eta intsumisioaren mugimenduen garaiak gogoratzen dituen *Bi urte, lau hilabete eta egun bat* kaleratu du. Atzo, gaur eta igandean Iortia kultur gunean proiektatutako dute, eta dagoeneko hiru emanaldietarako sarrerak agortu dira. Arrakastatsua izaten ari da dokumentala. "Ezuste harrapatu gaitu. Alde batetik dago zer egiten duzun zuk eta, beste aldetik, transmisioa nola egiten duzun", azaldu du Garrok.

2012. urtean Iruñeko kartzela zaharra eraitsi zuten, eta beste bat eraiki zuten. Gertaera horrek dokumentala orain egitearekin zerikusia izan duela esan du Garrok: "Eraitsi zuten egunean hainbat intsumiso, haien artean Gaizka Aranguren, kartzelara sartu ziren eta beraien burua filmatu zuten bakoitza egondako ziegan". Haien ziega izandakoa gogoratzen zuten, eta sentsazioak askotarikoak izan ziren, "alde batetik, malenkonia. Zu bertan bizi izan zara, kartzela horretan, eta beste alde batetik, preso egon zara, ziega itxi batean izan zaituzte, gatibu izan zara". Kartzela lurralde arrotza bihurtzen da. "Irudi horiek emozionalki oso konplexuak eta, aldi berean, ederrak ziren". Kartzela zegoen tokian plaza bat eraiki zuten, eta Intsumisioaren plaza izendatu zuten.

Urte batzuk geroago Arangurenak irudiak erakutsi zizkion eta "intsumisioaren eta kartzelaren historiaren inguruko" zerbait egin zezaketen galdetu zion. "Baietz esan nion. Ideia ona zen eta material ona ikusten nuen". 2020. urtean *Lau urte, bi hilabete eta egun bat* dokumentala mustu dute, Aranguren ekoizlea eta protagonistetako bat dela. "Euskal jendarteak eta, bereziki, euskal zinemak zor historiko bat zuten intsumisioaren mugimenduari".

Sei dira dokumentalaren protagonistak: Gaizka Aranguren, Fernan Mendiola, Juan Kruz Lakasta, Iñigo Balbos, Jaxin G. Viniegra eta Tonino Carotone. Gaur egun, kazetariak, historialariak, suhitzailak eta musikariak dira. "Protagonistak emanak etorri ziren. Haiak sartu ziren kartzelan egun horretan". Baina hortik abiatuta intsumisioaren mugimenduen barruan egondako beste hainbat istorio kontatzen dira, "puzlea osatuz". Esaterako, Pepe Beunza Valentzian izan zen Espainiako Estatuok lehenengo kontzientzia eragozlea ateratzen da, Bilboko MOC Movimiento de Objeción de Conciencia taldeko Mabel Cañada edo Conchita Beitia frankismoaren garaiko intsumisioa eta bere semea soldaduskaren kontrako intsumisioa izandakoa. "Ikuspegi asko ematen dira: zer zen intsumisioa, zer aurpegi zituen, mugimendua



Intsumisioak Iruñeko kartzelaren patioan 1990ko hamarkadan. ARTXIBOA

zein anitza zen, feminismoa...". Intsumisioa ulertarazteko dokumental bat da.

"Guk esaten dugun bezala, Iruñekoek egiteko, ez dago gaizki". Navarrok dagoeneko filma ikusi du eta ikustaldia "politika izan zela" esan du. Intsumisioaren mugimenduen historia kontatzen du, "ahal duena kontatzen du. Niretako gauza batzuek garrantzia gehiago izan dezakete eta beste batzuek gutxiago, baina film batean ahal dena ateratzen da". Laburpen polita egiten du.

Errealitatea

Intsumisioaren mugimendua oso jendetsua eta denboran oso luzea izan zen. "Denbora asko iraun zuen eta gertakari handiak sortu zituen bere inguruan". Garrok azaldu duenez. "Hemen Sakanan beti egon da soldadus-

karen aurkako pentsamendua. Nik, behintzat, gaztetan horrela nabaritu nuen". Are nabariago zen, "gertu tokatzen zaizuenean", Navarrok azaldu bezala. "1980ko hamarkadan kontzientzia eragozle asko zeuden. Orduan, soldaduskara joan nahi ez zutenei beste aukera bat ematen zitzaien, PSS Prestación Social Sustitutoria deitutakoa". Ondoren, legea aldatu zuten eta PSS delakoa ez egiteagatik edo intsumiso izateagatik kartzela zigorra ezarri zieten. "Gu mugimenduan sartu ginen 1990ko hamarkadan".

Unibertsitatean ikasten ari zela sartu zen intsumisio Navarrok. "Nik argi nuen intsumisio izan behar ginela, nire kasuan, ez nintzela soldaduskara joan behar; argi eta garbi. Lizarragakoa naiz eta soldaduska egin zuen azken mutikoa uste dut nire kinto bat izan zela 1990eko hamarkadan".



EGOKI

VENTANAS PVC LEIHOAK


www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA

egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea





Lizarragako hiru intsumiso egon ziren Iruñeko kartzelan elkarrekin, eta 1990eko hamarkadaren bukaeran intsumiso izateagatik kartzelako zigorra kendu zuten eta "administrazio zigorra" jarri zuten, eta Lizarragako azken intsumisoa, Lope, horrela izan zen zigortua.

Intsumisioaren mugimenduen barruan "hainbat korrante" zeuden, ideologia, pentsamendu eta talde desberdinak. Baina denak helburu komun batengatik batzen ziren. "Guztiok nahi genuen soldaduska kentzea, baina baziren pazifistak zirenak, beste batzuk bandera batekin ez baina beste batekin bai, beste batzuk anarkistak ziren, besteak punkiak...". Sakanako intsumisoak talde batean bildu ziren, SAT edo Sakanako Talde Antimilitarista, "Sakanikolak" deitzen zieten kartzelan, zerbait "berezia" zutelako. "Bazegoen mutiko bat, Txofo, eragozlea zena eta berak lan handia egiten zuen. Gure atzetik egoten zen beti laguntzen". Salhaketa elkartarekin ere elkarlanean aritu ziren, eta kartzelara joateko "prestatu" zituen. "Mugimenduari indarra kentzeko bigarren gradutik kendu eta

zuzenean hirugarren gradura pasatzen ginen, hau da, kartzelara lo egitera joan behar ginen bakarrik". Horren aurka zeuden: "Soldaduskaren eta ejertzitoaren aurka geunden, eta horren guztiaren aurka".

San Klemente ospakizunaren harira Antsoaingo kuarteleko sarreretan kateatu ziren, "gu atxilotzeko". Egun pare bat kartzelan pasatu zituzten eta gero hirugarren gradura pasatzen zituzten, "baina gure helburua uko egitea zen". 1993. urteko azaroan kartzelan sartu zen, eta 1994. urteko Altsasuko ferietako bezperan atera zen, jartzen zizkieten parteengatik. "Ia urte bat egon nintzen, urte bateko kondena ia osorik bete nuen". Kartzela "beste mundu bat dela" esan du Navarrok. "Haiek zu pertsona bezala zapaltzeko daude. Beste sistema bat da. Ez da batere atsegina". Bi aldiz zinpe-

"NIK OSO ARGI NEUKAN SOLDADUSKA EZ NUELA EGIN BEHAR"
MAÑU NAVARRO

ko izatea egokitu zaio, "eta argi esan nuen nik ez nuela inor kartzelara eramango. Ez nuen nire kontzientzia hori izan nahi". Hori esateagatik fiskalak epaimahaitik kendu zuen, eta bigarren epaiketa batean abokatua ezagutzen zuen: "Iñaki Zubiza gure abokatua izan zela esan nuen, eta handik ere kendu ninduten".

Dokumentalean kartzelaren eta dispertsioaren gaia ez dela asko ateratzen aipatu du Navarrok. "Eta kartzelako borroka; gu ere han asko borrokatu ginen". Espetxean pasatako denbora ongi aprobetxatu zutela esan du: "Agenda inoiz baino beteago izaten genuen. Prentsa irakurtzen genuen, kirol asko egiten genuen, gutun pila bat jasotzen genituen...". Ez ziren gelditu. Barruan jendea nola tratatzen zuten ikusita, haren kontra ere borrokatzen ziren, eta "beraiek haien armak erabiltzen zituzten parteak eta parteak jarriz". Ondoren, estatuko hainbat kartzelatan sakanatu zituzten. "Oraindik, gaur egun, jarraitzen du". Familiarendako sufrimendua dela gaineratu du Navarrok.

"Intsumiso ez ginen bakarrik gu, intsumiso familia, lagunak, kuadrilla, neska lagunak... denok ginen". Mobilizazioak izugarriak izaten ziren. "Espetxean geundenean manifestazio jendetsuak egin ziren Iruñean, Etxarri Aranatzen...". Kartzelatik ere txupinazoak entzuten zituzten Altsasuko, Etxarri Aranazko zein beste herritako festetan. Navarrok kontatu duenez, *Bi urte, lau hilabete eta egun bat* dokumentalaren espetxearen kanpoaldean egin zen kontzentrazio bateko pankarta "Lizarragako hiru edo lau neska" agertzen dira. Gizartean zegoen mugimendu bat zen.

Dokumentala mustu zuenetik Garro Euskal Herriko txoko askotan egon da, eta "gauza polit bat geratzen zaigu. Joaten garen herrietan jende asko ezagutzen dugu beraien istorioekin". Bakioitzak intsumisioari lotutako istorio bat dauka; kartzelan egon zena: "Bera, bere anaia, bere lehengusua, aita edo mutil laguna...". Oso ongi pasa zutela aipatzen dute. "Nik uste jendeak intsumisioaren gaia samurtasun eta nostalgia handiarekin bizi duela". Jende askok negar egiten duela aipatu du, barre ere egiten dute. "Esperientzia oso polita izaten ari da".

Amaiera

Derrigorrezko soldaduska 2001. urtean kendu zuen Jose Maria Aznarren gobernuak. "Intsumisioaren borroka oso amaiera gazi gozoa izan zuen". Alde batetik, "ederra" izan zela aitortu du Garrok, soldaduska kendu zutelako, baina, beste aldetik, "Aznarren gobernuak kendu zuen". Amaiera iritsi zenean "zorian handia" hedatu zen, baina era berean, "nola ospatuko dugu Aznarren gobernuak egin duen zerbait? Intsumisioak lasterketa luze-luzea egin zuen, maratonia, eta azken 50 metroetan beste batek esan zigun: lasai, nik hartuko dut. Eta helmugan sartu zen". Euskaldunek indarren arteko sinergia handiko eta jende desberdina elkartuz mugimendu

"EUSKAL ZINEMAK ZOR HISTORIKOA ZUEN INTSUMISIOAREKIN"
LANDER GARRO

bat sortzea lortu zutela aipatu du Garrok, "irakaspen handiak uzten dizkigunak eta oroituaz izatea merezi duena". Ikaspen horretatik gauza gehiago etorri daitezkeela uste du dokumentalistak.

"Eskakizun nagusia soldaduska kentzea zen, eta soldaduska kendu zuten, garaipen bat bezala hartu zen". Baina denborarekin hustu zela azaldu du Navarrok, "esaten dute ez genuela ospatu, eta orain, denborarekin, kanpora ateratzen ari da". Gertatu zena gertatu zela jakinda ere "berriro egingo nuke, zalantzarik gabe". Argi zeukan ez zela inor hiltzera ikastera inora joango. "Eta oso harro nago". Nahiz eta derrigorrezko soldaduska kendu zuten, ejertzitoak hor jarraitzen duela aipatu du Navarrok, "eta oso gertu izan dugu beti". Txikia zenean Andian maniobrak egiten ikusten zituela aipatu du. Behin baso batean ere bonba bat ikusi zuen, "oraindik hor jarraituko du".

Oso mediatikoa

1990. hamarkadan ez zegoen gaur egun dagoen teknologia, baina garai horretan bideogintza jendearen eskura zegoela esan du Garrok. Hortaz, "kuadrilla guztietan bazegoen beti norbait kamerarekin joaten zena dena grabatzen". Joxe Lacalle "handiaren" argazkiak daude ere, orain *Si te mandan una carta* liburua kaleratu du. "Komunikabideen material guztia ere badago". Ekinza ikusgarriak egiten zituztela esan dute bai Garrok bai Navarrok. Dokumentala sortzeko sei protagonistekin grabatutako zatia dago, baita dokumentazioaren lan guztia ere. "Hori da gehien kostatu zaiguna".

Nafarroako Memoriarako Institutuak kontzientzia eragozpena eta intsumisioak Nafarroan izandako ibilbidea eta bake kulturaren zabalkundean egindako ekarpena dokumentu funts batean jasoko dute. Intsumiso izateagatik Iruñeko kartzelan preso egondako Pedro Oliver da Kartzelen eta Zigor Erakundeen Historiaren ikerketa taldeko koordinatzailea. Oliverrek espetxean SAT-eko kideak ezagutu zituen, eta haien artxibo pertsonaletan arakatzeko eta elkarrizketak egiteko eskatu zien.



ASTEKOA

YOLANDA OLASAGARRE

Hezkuntzaz eta edukazioaz

Onartu berri da Espainiako Kongresuan Hezkuntza Lege berria. Badirudi ohitura dela Gobernu berri bat iristen denean bere Hezkuntza Lege propioa egin behar izatea. Denborak erakutsiko du lege honen proposamenak eta helburuak praktikan nola gauzatu diren esatea. Bien bitartean, hezkuntza eragileok (irakasle, zuzendaritza talde, ikuskari, prestatzaile...) hezkuntza egiten jarraituko dugu. Legean aipatzen diren ikasgaiez gain, beste mota bateko eginkizuna ematen baitzaio eskolari (ez lehenengo aldiz): edukiak eta baloreak lantzeko edo, beste modu batera esateko, edukazioa irakasteko.

Bi gai aipatu nahiko nituzke hezkuntza sistema modernizatzeko hartutako neurrien artean. Bata, generoen arteko berdintasuna eta koedukazioa modu transbertsanean ezartzea. Ezin uka helburua beharrezkoa dela. Baina nola egingen da? Nola eramanen da egiteko hori guztia praktikara? Nola iritsiko da ikasgeletara? Beste inolako laguntzarik gabe, irakasleen esku utziko da? Pentsatzekoa da irakasleok *de facto* berdintasun ikuspegia dugula? Irakasle izateari egiteko berri bat gehituko zaio? Transbertsal hitzak ikuspegia ikasgai guztietara iritsiko dela esan nahi baitu, baina esatea bat da eta egitea beste bat. Nik nahiago

DENBORAK ERAKUTSIKO DU LEGE HONEN PROPOSAMENAK ETA HELBURUAK PRAKTIKAN NOLA GAUZATU DIREN

nuke praktikan ikuspegi hori garatu behar baldin bada, transbertsal hitzaren ordez blaitu (melatu) hitza erabiltzea, norbaitek egin behar baitu blaitze ekintza, alegia, eragileak egon behar direla, izan irakasleak izan beste eragile

batzuk, eta horrek eragileak generoen arteko berdintasun ikuspegiak blaituta egotea eskatzen du.

Bestea, Herritaritasun aktibo, kritiko eta globalerako hezkuntza ikasgai "berri" moduan dator; bai Lehen Hezkuntzan, bai Bigarren Hezkuntzan errotzeko. Ikasgai hori nola egituratuko den eta zein eduki izanen dituen oinarrikoa izan beharko luke herritar gisa behar dugun kultura politikoa eskuratze aldera. Ez dakit horrelakorik aurreikusia egonen den. Niri gogoeta hauekin batera burura etortzen zait Saizarbitoriaren esaldi hau (ez dakit zerbait ikustekoa duen, baina tira): *Estiloa izateko edukazioa behar da izan. Eskoletan edukazioa ematen ez delarik, ezin ba estilorik eman.*

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GUAIXEK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutunak asteazkena 10:00ak baino lehen bidali beharko dira erredakziora. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, NA zenbakia, herria eta harremanetarako telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Foru plaza, 23 - 1., 31800 Altsasu / gutunak@guaixe.eus

HARA ZER DIEN

Jabetuko ote gara?

SAKANAKO ANITZARTEAN KULTURARTEKOTASUN ZERBITZUA

COVID-ak ere ez gaitu berdindu. Eragin latzak ditu mundu mailan. Munduko alde honetan jaiotako batzuek jarraitzen dugu lanean eta ongizateari eusten. Askok berriz, lana galtzarekin batera makina bat aukera eta eskubide galdu dituzte. Munduaren beste aldean jaiotako direnek ordea, egoera askoz ere latzagoa zuten COVID-a baino lehen, eta ondoren gehiago.

Migratzea eskubide unibertuala da. Azken egunotan milaka gizaki iristen ari da Kanarietara bizitza salbatu nahirik. Egiteko duina ezta? Zer egingo genuke guk? Iritsieraren kopuruak "larritzen" gaitu, komunikabideen eragin ezkor

premeditatuari esker. Eta bidean hildako milakakoak? Zergatik ez dira inon aipatzen? Gehiago: itolarrian dagoena salbatzea ere debekatzen ari da gezurrezko Europa "demokratiko"? hau, eta berdin-berdin geratzen gara.

COVID-ak eragin asko du, elkartasunarekiko ere bai. Kikildu, isildu gaitu injustizien aurrean, eskubideak urratuagatik etxean dihardugu. Baten bat pozik egonen da.

Bitartean, herritarrok, elkar "joka" hastetik hurbil gaude. Eskuin muturraren mezu faxista, aporofobo, arrazista, kriminalizatzailea isilean sartzen ari zaigu barru-barrura. Prest gaude gu baino okerrago daudenak guretik bidaltzeko, berdin da nora; ez

ordea, honen azken erantzukizuna duen boteredunari bere egitekoa egin dezan aldarrikatzen.

Ez ditugu gurekin nahi, baina bai guk nahi ez ditugun lanak egiteko. Jabetzen al gara migratuek gure ongizatean eragin zuzena dutela? Haien bizi baldintza kaxkarrei esker jarrai dezakegula gure ongizatean?

Migratzailea bere egoeraren biktima da, ez erruduna. Eta zer da iritsiera bide berriak sortu eta makina bat dirutza lapurtzen dieten mafiez? Ezer ere ez? Zertarako balioko du Marlaska Marokora joateak? Migrazio krisiari irtenbide bila? Krisia ez ote da Europarena? Agintean dauden lapur inkonpetenteena?

Jabetuko ote gara? Herriak soilik salbatuko du herria. Agian bihar gu gara migratzaile. Zer, orduan?



OBJEKTIBOTIK



Lakuntzako Gazte Asanblada @lakuntzako_ga · aza. 19

Datozen egunetan, Euskaraldiarekin batera, hitz eta esaldi batzuk igoko ditugu lakuntzako euskaraz, dagokien definizioekin. GU ERE EUSKARALDIAREKIN BAT!

guaixe

SAKANAKO ASTEKARIA

www.guaixe.eus

Koordinatzailea:

Goizeder Anton Iturralde fundazioa@guaixe.eus

GK diseinu zerbitzua:

Ainara Santiago Langarika info@gkomunikazioa.eus
Ainhora Etxeberria Pikabea gk@gkomunikazioa.eus

Administrazioa:

Gema Lakuntza Lopez admin@guaixe.eus

Zuzentzailea:

Patxi Flores Lazkoz

Lege gordailua:

NA-633/1995

Tirada: 3.200

Erredakzio burua:

Alfredo Alvaro Igoa guaixe@guaixe.eus

Erredakzioa:

Maidier Betelu Ganboa kirolak@guaixe.eus
eta Erkuden Ruiz Barroso kultura@guaixe.eus

Maketatzailea:

lune Trecet Obeso maketazioa@guaixe.eus

Publizitatea:

Eneida Carreño Mundiñano publi@guaixe.eus

ARGITARATZAILEA:

Guaixe Fundazioa.
Foru plaza 23-1.
31800 Altsasu
948 564 275
948 562 107 (Faxa)
618 882 675

LAGUNTZAILEAK

Mank

s a k a n a

BAZKIDEAK



Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra

Hondakin Prebentziorako Europako Astearekin bat

Kafe Konpondu jarduerak egiten ari dira, garbigune berria zabaldu da Altsasun eta garbiguneetara zerbait eramatera doazenek paperezko poltsa berrerabilgarria eta musukoa jasoko dute

SAKANA

Hondakinak Prebenitzeko Europako Astea da honakoa eta Sakanako Mankomunitateak harekin bat egin du, "jakirik hondakin onena sortzen ez dena dela". Hori dela eta hainbat jarduera antolatu ditu. Aurreko urteetan bezala, Mank-eko Hondakin Kudeaketa Zerbitzuak eta Batuta Sakana elkarteak Kafe Konpondu jarduerak eskaini du. Topaketa horien bidez sakandarrei etxetresna txikiak, jostailuak, aulkiak eta bestelakoak konpondu eta konpontzen ikasteko aukera ematen zaie. Hala, hondakinak bihurtzeko gauza horiei bizi berri bat eman ahal izateko, eta, ondorioz hondakin kopurua murrizteko. Irurtzun, Izurdiaga, Etxarren eta Urdiaindik pasa ondoren, ostiralean, 17:30etik 19:30era, Baikaikuko udaletxeko goiko aretoan izanen da.

Tamaina handikoak

Mank-eko Hondakin Kudeaketa Zerbitzutik azaldu dutenez, tamaina handiko hondakinak (altzariak, etxetresna elektrikoak edo tresna elektronikoak) egoki kudeatu behar dira eta "inolaz ere ez dira kalean edo ingurune naturaletan utzi behar". Horregatik, Nafarroako Gobernuarekin eta Nafarroako Hondakin Partzuergoarekin batera *Ez utzi botata, jarri amaiera polita* kontzientziazio kanpaina martxan jarri dute. Edo bestela esanda, "gure etxeak berrerabilgarriak izan daitezkeen lehengaiak sortzen dituen fabrika izan daiteke eta gu zirkulu ekonomiaren motor bihurtu gaitzke tamaina handiko hondakin horiek egoki kudeatuta".

Sakanan tamaina handiko hondakin horiek etxetik kentzeko bi bide daude. Alde batetik, Emauseko Trapuketarien atez ateko bilketa zerbitzua dago. Horretarako, 948 46 48 67 zenbakira hots egin edota info@sakana-mank.



Etxetresnak tokiz kanpo utzita ez dira behar bezala birziklatzen. ARTXIBOA

eus helbidera idatzi daiteke. Hitzordua lotu eta etxetik pasako dira. Bestetik, Sakanako Mankomunitatearen Garbigune Finkoen Sarera eramán daitezke tamaina handiko hondakin horiek: Arbizuko kudeaketa gunera edo Altsasuko Otain berriki zabaldu den garbigunera. Biak asteleheneetik ostiralera 9:00etatik 14:30etara irekita daude. Mank-etik jakinarazi dutenez, "garbiguneetara zerbait ekartzera etortzen den edonork paperezko poltsa berrerabilgarria eta

musuko berrerabilgarria jasotzeko aukera izanen du".

Gehiago

Mank-etik jakinarazi dutenez, aurki herrietako egoitza publikoetan (udaletxeak, liburutegiak, osasun etxeak, kultur etxeak...) gehiegizko publizitatea jasotzea ekiditeko eta paperaren xahuketari kontra egiteko, "publizitate-rik ez" jartzen duen pegatinak eskuragai izanen dira, edonork bere postontzian jar dezán. Horretaz aparte, Hondakin Kudeaketa Zerbitzua arropa trukeak herriz herri egiteko lanetan dabil. Arropa bilduko da eta trukean puntuak lortu. Pilatutako puntu horiekin eramán diren beste arropa batzuk eskuratu ahal izanen dira. Truke horien berri aurrerago emanen dute.

Bestetik, Mank-ek jakinarazi du garbiguneetan egoera onean dagoen pintura jasotzen dela. Hori dela eta, hemendik aurrera pintura kopuru handiari berrerabilera bat eman nahian, pintura hori gorde egingen da eta Sakanako edozein zerbitzu publikok (ikastetxeek, udalek, eta abar) erabiltzeko aukera izanen du.

Hauskortasun sindromeari buruzko programa sortu dute

Josefina Arregi klinikak hauskortasun sindromea goiz detektatzeko eta horretan esku hartzeko programa pilotua martxan jarri du. Klinikaren programa berriak faktore prebentiboa ikuspegi multidimentsionaletik hartzen du, paziente helduek demenztzia izan edo ez. Programa berriaren helburua da adinekoren artean mendekotasuna eragin dezaketean egoera ezgaitzaileak garaiz detektatzea. Hau da, erorikoak izateko arriskua murrizten laguntzea, eta adineko helduek bizi kalitatea hobetzea eta beren etxeetan ahalik eta denbora gehien egotea, egoitzetan instituzionalizatzea atzeratuz edo saihestuz.

Programa garatzeko plataforma digitala garatu dute Josefina Arregi klinikak. Han mediku taldeak hautatutako proba guztiak batu dituzte, jasotako informazioa errazago baloratu eta kudeatu ahal izateko. Gainera, plataformari esker, pazienteek eta haien familiek etxean bertan egin ditzakete azalduetako testen zati handi bat. Ondoren horiek mediku taldeak kontsultan egingen dituen balorazio eta neurketa teknikoekin osatuko dira. Izan ere, Josefina Arregi klinikak programa hori garatzeko gune bat propio prestatu du Iruñerriko egoitza berrian.


Gazteriaren Sarietako Entitatearen Saria Gozamenendezako

Nafarroako Gobernuaren Gazteriaren Institutuak 2020ko Gazteriaren Sariak banatu ditu. Hiru sari dira, eta Entitatearen Saria Sakanan abiarazi zen Gozamenenez sexualitate eta gazteria programak jaso du. Bestalde, Altsasuko Udaleko Gazteria Zerbitzuak aipamen berezia jaso du, aurten 25 urte bete dituelako.

2020an, duela 20 urte abiatu zen Gozamenenez programa, Nafarroan, eta 2001 urtetik martxan da Sakanan (www.gozamenez.com). Sexualitateari eta gazteriari buruzko programa komunitarioa da, eta zenbait elkarte eta erakundek sustatu zuten, gazteen sexualitatea ikuspegi positibo, adeitsu, plural eta aberasgarri batetik lantzeko helburuarekin. Gozamenenez sexualitatearen hainbat alderdiri buruzko hausnarketa eta eztabaida sustatu nahi du gazteen artean eta gazteen eta haien biartekarien artean -familia, ikastetxea, komunikabideak...-. Horretarako makina bat tailer, ikastaro eta ekimen burutu dira Sakanan programa guztiz errotuta dago. Bada, Gozamenenez programak Nafarroako Gobernuko Gazteriaren Institutuaren aitortza jaso du, 2020 Entitatearen Gazteria Saria hain zuzen ere. Egun 31 herri eta ibarretan gartzten da Gozamenenez.

Enkanteak

Etxarri Aranazko Udalak Zumurdiñeta industrialdean partzela bat saldu du eta 56.300 euro eskuratu ditu. Bestalde, Altsasuko Udalak 202.024 euroko sarrera izan du lau baso aprobetxamendu enkante bidez saldu ondoren. Azkenik, Olatzagutiko Udalak bargan saldutako bi baso aprobetxamendurekin 107.262 euro jaso ditu.



EGUN ON SAKANA
Goizero 10:00-12:00
Errepikapena 14:00-16:00
web bidez: www.guaixe.eus

107.3 FM
beleixe

Euskara erdigunean jartzeko ariketa soziala

Euskaraldiak hizkuntza ohiturak aldatzeko aukera eman nahi du. Eta edizio honetako zifra batzuk baditugu

Alfredo Alvaro Igoa SAKANA

Euskaraz bizi nahi duten herri-tarrak kalean aktibatuta ditugu, belarriprest eta ahobizi txapa jarrita. Euskara gehiago, gehiagotan eta gehiagorekin hitz egin nahi dute eta jarrera horrekin

esnatzen dira egunero. Euskaraldian baikaude. 15 egunez euskara hutsean bizi edo horretan ahalegina egiteko ariketa martxan da. Ariguneak horretan ere laguntzaile dira. Sakanan baditugu batekoak eta bestekoak.

Zenbat gara?

Euskaraldiko kantuak egiten duen galderetako bat da. Astearte gauerdian itxi zen euskararen erabilera handitzeko ariketa sozialean izena emateko epea. 2.171 sakandarrek eman dute izena, aurreko edizioan baino 438 gutxiagok (%16,79ko jaitsiera). Hala ere, Euskaraldian parte hatzen dutenak sakandarren %10,75 dira. Ekitaldi oso gutxi lortzen dute halako parte hartzea ibarrean.

Izen emate garaian Sakanako 16 Euskaraldia batzordeek sumatzen zuten lehen edizioako kopuruaz azpitik zebiltzala. Baina parte hartzearen jaitsieran zerikusi handiena pandemiak izan du, Euskaraldia baldintzatu du. Elkarrengandik urrundu gara, talde txikitik elkartzen gara, klase guztietako ekitaldiak bertan behera gelditu edo egokitu dira. Komunitateak ez daude trinkotuta. Eta, zailtasunak-zailtasun, herrietako batzordeek ahalegin handia egin dute sakandarrengana iristeko eta aktibatze. Egoera dena izanda, lortutakoa kontuan hartzeko modukoa da.

Aurrekoan bezala Euskaraldiak kalean ikusgarritasuna lortzea zailagoa izan da aurretik, eta orain. Nahiz eta kalera aterata txapak ikusten diren. Aurrez aurreko topaketak izaten dira, eta aurrekoan bezala, sorpresa ederrak opatzen dira, ezustean halakok euskara ulertzen edo hitz egiten duelako. Harremanak baldintzatuta eta mugatuta daude bai, baina telefonoz, sare sozialen, bideo deien eta abarren bidez komunikatzen segitzen dugu. Euskaraldian horietan zentratu behar da aurrean, horiek euskaraz egitea tokatzen da. Ohitura aldatu eta hala segitzeko.

Bi mila pertsonatik gorako parte hartzea oinarri sendoa da. Sakandarrek badute gogoia, eta beharra sentitzen dute, bere hizkuntza ohiturak aldatzeko, euskara erdigunean jartzeko. Euskaraldia egiten ari da Sakanan, ez soilik 2.171 horiek. Txapa jantzeak eragin biderkatzailea baitu. Euskaraldiak hizkuntza ohituretan eragiteaz aparte, parte hartu edo ez, norberaren hizkuntza ohituren inguruan pentsatzera bulkatzen du. Euskararendako arnasaldi handi bat da garai hau. Hitzak, esaldiak, esaera zaharrak, txisteak, pozak, penak, amorrak... ohiturak aldatu eta denak euskaraz emateko garaia da.

Generoa

Aurreko Euskaraldiko joera berretsi da, emakumezkoek gizonezkoek baino gehiago parte hartzen dute hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketan. Izen emandako sakandarren %62,74 emakumezkoak dira (1.362, aurrekoan baino 2,57 puntu gehiago). Gizonezkoen parte hartzea % 36,67 da (796, 1,11 puntu gutxiago). Ez binarioak berri %0,78 dira (17, 0,25 puntu gehiago).

Genero banaketa hain nabarmen hori ez da soilik Euskaraldian gertatzen. Euskaltegiak izen emateetan eta, orokorrean, kultur ekitaldi edo ekimen guztietan, gizonezkoek gutxiago parte hartzen dute. Euskara feminizatuta dago? Indarrean dagoen maskulinitate ereduak ez du hizkuntzarendako tokirik uzten? Utzikeria da?... Galdera asko sortzen dituen gaia da, lehen edizioaren ondoren identifikatu zena. Hala laburbildu zuten Kike Amonarrizek otsailaren 14an Altsasun eman zuten hitzaldian: "testosterona arazo bat dugu!"

Euskarak aurrera eginen badu, gizonezkoen konplizitatea eta parte hartzea ezinbestekoa izanen da.

Rolak

Lehenengo edizioan bezala, oraingoan ere, izena eman duten bostetik lauk ahobizi rola hartu du (1.760 sakandar, parte hartzaileen %81,07, 1,57 puntu gehiago). Belarriprestak, berriz, 411 izan dira (%18,93). Euskaraldian parte hartzeko ezinbesteko baldintza da euskara ulertzea. Beraz, nahi eta nahiez, parte hartzaile guztiak belarriprest dira. Oinarri horrekin, hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketan jarrera lasaigoa edo ausartagoa hartu daiteke, belarriprest edo ahobizi. Eta, hala ere, izen-emate batzuk ikustean zalantza sortzen da: jendeak rolak ulertu ditu? Badaki ahobizik eta belarriprestek ez dutela loturarik euskararen ezagutzarekin? Euskara asko edo gutxi jakin, horrek ez du zerikusirik rolekin. Belarriprest edo ahobizi txapa jantzen dutenek euskara erabiltzerakoan jarrera bat hartzen dute. Hori argitzea da egitekoetako bat.

Eta rola aukeratzeko zintzoa izatea ere.

Hala ere, ahobizi eta belarriprest jarrerak hartuta bi mila pasa sakandar euskarazko espazioak zabaltzen ari dira etxean, lagun artean, parte hartzen duten entitateetan... Guztiak, belarriprest edo ahobizi txapak soinean, euskararen, komunitatearen alde ari dira. Ilusioz.

Euskaraz hitz eginez, elkarrizketa elebidunak izanik, komunitate guztiaren etorkizuna lantzen ari dira. Txapa jantzita elkar ikusteak poz txikiak sortzen ditu, euskararen sua bizitzeko ezinbestekoak diren ilusio garrak dira. Euskaralditik kanpo segida duen ariketa.

Errepikatze tasa

Euskaraldia ariketa guztiz berria zen 2018an. Orduan parte hartu zutenen %74,99 (1.628 sakandarrek) berriro eman dute izena Euskaraldian eta hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketan parte hartzen ari dira. Lehen edizioaren positibitate eta baikortasun olatua ikusita izena ematera animatu diren sakandarren %25,01 estreinakoz parte hartzen ari dira ariketan. 2018an 16 urte ez zituztelako edota ariketa ezagutu ondoren izena ematea erabaki dutenak. Bestalde, izan da ere aurreneko Euskaraldian parte hartu eta txapa etxean zuenez, izena eman ez duenik.

Ariguneak

Aurtengo edizioako berritasuna dira euskaraz lasai hitz egiteko espazioa, ariguneak. Sakanako 119 entitatek eman dute izena (*labur.eus/SakanakoAriguneak*) eta, guztira, 371 arigune sortu dira. Haietatik 182 barne arigune dira, hau da, entitate barruan hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa egite ari dira. Eta gainontzeko 189ak kanpo arigune dira. Haietara joaten diren sakandarrak badakite euskarazko arreta jasoko dutela.

Harreman sozialak mugatuta izanik, arigune gisa izena emandako establezimendu askok jendaurreko harrerarik ez dute, edo mugatua dute. Ingurune digitala erabiltzen dutenak errazago izanen dute. Baita lantokietan sortutako barne ariguneek ere. Merkataritzako kanpo ariguneak ere martxan dira, bai Euskaraldia berriak etorriko dira eta haietan ere ariguneak egon dira. Entitateek eta erakundeek denbora dute hausnartzeko eta beraien erakundeetan hizkuntzaren normalizaziorako pausoak emateko. Eta jakinik zer diren kanpo eta barne ariguneek, gaurtik pausoak emateko garaia da. Horrela, hurrengo Euskaraldirako lankide, langile, elkartekide, bazkide, arduradun, agintari eta abarren hausnarketak eta konplizitateak lortu eta euskarari bide berriak zabalduko dizkiogu kultur, kirol edota gastronomia elkartean, lantegietan, merkataritzan, ostalaritzan edota administrazioan.

Euskararen alde jokatzeko garaia da, euskaldunen aldeko politikak sustatzeko eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko.



Jostunek eta makerrek jaso dute Sakana Saria. ARTXIBOA

Sakana Saria elkartasun auzolanak jaso du

Jostunek eta makerrek jaso dute estreinako Sakana Saria. Aurrenek 10.000 bat bata josi zituzten osasun zerbitzuarendako; hurrenek, 3D inprimagailuak erabiliz, hainbat establezimendutan banatu ziren aurpegi babesgarriak eta beste egin zituzten

SAKANA

Aurtengoa COVID-19n gaitzak markatutako urtea da. Eta testuinguru horrek markatu ditu aurtentzen sortu diren Sakana Sariak ere. Dozena bat proposamen jaso ziren sarituak izateko. Baina pandemiaren lehen olatuan egindako lana kontuan izan zuen epaimahaiak saria banatzera koan. Alde batetik, Sakana Maker

ekimena, auzolanean COVID-19aren kontrako babes ekipamenduak egin zituzten eta haiek osasungintzan eta merkataritzan oinarritzko zerbitzuetan aritu zirenei eskaini zizkieten. Bestetik, Sakanako Jostunak, 59 boluntarioz osatutako sarea da eta Nafarroako Osasun Zerbitzua-arendako arropak eta beharrezko elementuak josi zituzten.

Sari banaketa Altsasuko Iortia kultur gunean egin zen atzo arratsaldean. Sarituek ibarreko ospakizunetan ardoa banatzeko erabiltzen diren taza edo katilu horien errepikak jaso zituzten oroigarri gisa. Antolatzaileen iritziz, "festa giroko elementu tradizional horrek balio sinboliko handia du, batzen gaituena ospatzeko erabiltzen da katilua.

Elkartzeko aitzakia da, eta aldi berean, elkarrekin egotea ospatzeko balio du katiluak".

Hainbat herritarrek eta eragilek Sakana Sarietarako 12 hautagai proposatu zituzten. Epaimahaiko kideek "guztien ekarpena gogo biziz" eskertu zuten. Sarietarako epaileek jakinarazi zuten, "ez da batere erraza izan irabazleak aukeratzeko, hautagai oso sendoak zeudelako". Esan bezala, sarituak aukeratzeko garaian pandemian egindako lanari "arreta berezia eskaini" zioten epaileek.

Segida

Sakanako Sozioekonomia Behatokiak ekimena sariketa, eta bere helburua da "ibarrean gizarite, ingurumen edo ekonomia eragin positiboa izan duen erakunde edo ekimen kolektiboetara aitortza egitea, irabazi asmoa izan edo ez kontuan hartu gabe". Horretarako hiru balio izan dira kontuan saria banatzeko: dinamismoa eta erresilientzia gaitasuna oraingo eta etorkizuneko erronkei aurre egiteko; aniztasuna, aberastasun kolektibo gisa ikustea, eta, azkenik, elkartasuna eta onura komuna bilatzea komunitatearen beharrik lehenetsiz.

Behatokiak kideek "aurtengo harrera ona ikusita", aurreratu dute Sakana Sariak urtero banatzea dela haien nahia: "sakan-darrek duten ekimena aitortzea garrantzitsua baita. Filosofia parte hartzaile eta zabal batekin, babestu nahi ditugu komunalarren eta bizitza kolektiboaren alde lan egiten duten proiektuak eta pertsonak". Heldu den urtean baldintzak beste batzuk badira, sariketa "ospakizun modura eta sakan-darren parte hartzearekin" izatea nahiko lukete.

Beste hautagaiak

- Aitziber Elkarte.
- Amarauna.
- Sakana Herrera Harana.
- Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetako etxez-etekeko zerbitzua.
- KudeaGO.
- Arkatz liburu denda.
- Gogor.
- Txingurriye elkarte
- Oinarrizko komertzioa.
- Mankomunitateko oinarritzko zerbitzuak.

Epaimahaiko kideak

- David Oroz (Sakanako Mankomunitateko lehendakaria).
- Javier Olló (Altsasuko alkatea eta Burundako ordezkaria).
- Patxi Xabier Razkin (Lakuntzako alkatea eta Aranazko ordezkaria).
- Ainhoa Beraza (Irañetako alkatea eta Arakilgo ordezkaria).
- Javier Artetxe (Sakanako Enpresarien Elkarte).
- Ainhoa Alvarez (Sakanako dendari eta ostalarien elkarte).
- Aritz Ganboa (Belardi ekoizleen elkarte).
- Alfonso Nuin (Bidelagun turismo elkarte ordezkaria).
- Iñaki Mundiñano (Guaixe fundazioa).

Lehen arretako osasun zerbitzuak indartzeko eskaera

Nafarroako Osasun Plataformak eta Euskal Herriko Eskubide Sozialen Kartak manifestazioa deitu dute bihar, 17:30ean, Iruñeko autobus geltoki zaharretik abiatuta. Haren helburua da arduradun politikoei eskatzea Nafarroako aurrekontuetan diru gehiago bidera dezatela zerbitzu publikoetara, eta, zehazki, osasun zerbitzuetara.

BILTOKI
TABERNA • JETETKETA

Erabili musukoa eta mantendu distantziak

Cine terram disfrutatu!

948 467 876 · Altsasu

Txalaparta

Erabili musukoa eta mantendu distantziak

Taberna

948 467 070
Zumalakarregi plaza
ALTSASU

BIKAIN
GARAJEA, S.A.L.

948 460 037 Arbizu
948 468 441 Altsasu

Auto berri eta bigarren eskukoak SALMENTA

**Mekanika
Elektrizitatea
Txapa
Margotzea**

- BEROKUNTZA - NEKAZARITZA -
- AUTOMOZIOA -

Lakuntza

Ettxera eramateko gasoleoa

Alberto Iriarte

948 576 016 - 609 421 680

Sexu indarkeria begiz jota

Emakumeenganako indarkeriaren kontrako egunean, herenegun, hura salatzen kontzentrazioak egin ziren Irurtzun, Irañetan, Lakuntzan, Arbizun eta Altsasun. Emakumezkoak aske bizitzeko aldarrikapena zabaldu zen haietan

SAKANA

Altsasuko mugimendu feministako kideek "kapitalismo heteropatriarkalak emakumeengan eragiten duen indarkeriaz nazkatuta" daudela jakinarazi zuten.

Eta hainbat indarkeria mota zerrendatu zituzten: "eraso eta indarkeria matxista; COVID-aren eraginez hartutako neurriekin familia tradizional eta nuklearra indartzea, bakartzea, beldurra eta ezkutuan geratzen diren biolentziak gogortzea ekarri du; gizarte heteropatriarkalak dituen egiturazko indarkeriak, gizartean errotuta daudenak eta emakumezkoen gorputzak, bizitzak, izateak eta lurraldeak zeharkatzen dituenak espazio gehiegitan eta indarkeria fisikoa eta sexuala". Ziurtatu zutenenez, "ekonomia, politika eta lege botereek eta masa hedabideek patriarkatuaren indarkeria bulkatu, birproduzitu eta sustengatzen dute".

Aske izateko

Altsasuko mugimendu feministak emakumeen arteko sareak aldarrikatu ditu haiekiko indarkeriarekin bukatzeko eta, atzera ere, autodefentsa feminista aldarrikatu du. Horrekin batera, "emakumezkoak aske izateko" bost arlotan eragitea beharrezkotzat jo du. Lehenik, "justizia eredu birpentsatzea" eskatu dute, "arreta eraso jasan dutenen erreparazioan eta babesean jartzeko". Justizia feministarekin batera prebentzio arloan lan egitea aldarrikatu dute: "jendarate feminista lortzeko, hezkuntzan eta profesionalen prestakuntzan inbertitu behar da".

Emakumezkoak aske izateko baliabideak ere eskatu dituzte feministek: "indarkeria jasaten dugun emakumeok doako, kalitatezko eta unibertsala den gi-

zarte, psikologia eta lege laguntza behar dugu, epaitegian salaketa jarri edo ez erabakitzeke". Aldi berean, polizia ereduarekin kritiko azaldu ziren. "Segurtasun indarrek gorpuzten duten maskulinitate ereduak eta iraunarazten duen menderatze sistema berberak kolpatzen gaitu emakumezkoak, polizia kontrol mekanismoek gure askatasuna mugatzen dute. Egungo segurtasun ereduak ez gaitu aske sentiarazten, alderantziz, are gehiago biktimizatzen gaitu". Azkenik, gizonezkoak ardurak hartzera deitu dituzte: "konplizitate patriarkalarekin apurtu eta indarkeria matxistan duten erantzukizunez ohartzen diren gizonezkoak behar ditugu aske izateko, beraien inguru hurbilean aldatu egiten dituztenak".

"Emakumezko langileen antolakuntzara" deia

Lakuntzako Gazte Asanbladak (LAGA) deituta egin zen kontzentrazioa plazan. Gazte erakundeko kideek azaldu dutenez, indarkeria mota hori "gizarte burgesa ezaugarritzen duen egiturazko biolentziaren baitan kokatzen da". Eta gaineratu zutenenez, "emakumezko langileok subjektu debalatu garen heinean, babesgabatasun egoera handiagoan gaude".

LAGAko kideen iritziz pandemiaren testuinguruan "emakume langileon gaineko indarkeria modu esanguratsuan handitu da". Eta gogorarazi zuten konfi-

"KONPLIZITATE PATRIARKALAREKIN APURTUKO DUTEN GIZONEZKOAK BEHAR DITUGU ASKE IZATEKO"

namenduan emakumezkoak haien erasotzaileekin etxean egon zirela edota paperik gabe etxeetan lanean dauden emakumezkoen lan baldintzak okertu zirela. LAGAko kideen iritziz, "genero indarkeria klase dominatzaileak erabiltzen dituen mekanismoetako bat da sistema zapaltzailea betikotzeko". Horregatik dei egin zuten "burgesiak erabiltzen dituen hainbat tresna eta figura borrokatzera, nahitaezkoa da". Eta hiru eremu aipatu zituzten: lan arloa, festa giroko erasoak eta lana opatzeko hipersexualizatu beharra.

Lakuntzako Gazte Asanbladak "klase batasunera" deitu du, "harreman eredu kapitalistak gairiditu eta berdintasunean oinarrituko den harreman eredu propioa garatzeko prozesua abiatuz". Emakumezkoek burgesiaren kontrako eta sozialismoaren aldeko prozesura batzeko deia egin zieten.

Ikastetxeetan

Ikasle Abertzaleak deituta kontzentrazioak egin ziren Andra Mari ikastolan eta Altsasu institutuan. Azaldu zutenenez, "indarkeria matxista egiturazko indarkeria da, fenomeno sistemiko gisa ulertu behar dena. Fenomeno horren azken helburua da botere burgesaren egitura mantentzea, emakumezko subjektu debalatu izateko baldintzak jarritz". Gaztigatu zutenenez, "kapitalismoan hezkuntza instituzioak garrantzia handia du, ikasle otzanak sortzeaz aparte, lan merkatuaren beharretara egokitzen diren ikasle prototipo zehatzak sortzen ditu. Horretarako, etorkizunean lan merkatuan txertatuak izanen diren zapalduetako subjektibitateak sortzea beharrezkoa zaio".



IRURTZUN



IRAÑETA



LAKUNTZA



ARBIZU



ALTSASU

Altzari bakoitzaren atzean mila istorio daude. Ez utzi botata.

Eman ezaiozu amaiera polit bat



UTZI EZAZU GARBIGUNE BATEAN EDO DOAKO ZERBITZU BAT ERABIL EZAZU

948 464 867

info@sakana-mank.eus



AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 948 56 42 75 / kultura@guaixe.eus

OSTIRALA 27

BAKAIKU Kafe konpondu 2020.
17:30etik 19:30era, udaletxeko
goiko aretoan.

ALTSASU Gazte agenda:

Sexgunea.

Doakoa eta konfidentziala.
17:30ean, Intxostiapunta gazte
gunean.

UHARTE ARAKIL Emakumeen
aurkako indarkeriaren kontrako

eguna. **Sorgin ehiza eta emakume gaiztoaren mitoa deseraikitzen** hitzaldia Amaia Nausiarekin.
19:00etan, Alhondegian.

ETXARRI ARANATZ Tartean teatro konpainiaren **Ez Dok Ero** antzezlaren emanaldia.
19:00etan, kultur etxean.

ALTSASU Azken ostirala. Euskal presoak, Euskal Herrria elkarretaratzea.
Sarek deitutako elkarretaratzea.
19:00etan, udaletxearen parean.

OLAZTI El Sevillaren La vida es Rocanroll ikuskizunaren emanaldia.
19:00etan, kultur etxean.

SAKANA Irurtzun, Lakuntza, Arbizu eta Etxarri Aranatz. Azken ostirala: Euskal presoak, Euskal Herrria elkarretaratzeak.
20:00etan, plazan.

ALTSASU Altsasukoak aske elkarretaratzea.
20:00etan, udaletxearen parean.

LARUNBATA 28

IRURTZUN Orritz Iskidi dantza taldearen Udazkeneko jaialdia: **Dantza oinarria da** dokumentalaren emanaldia.
17:00etan eta 19:00etan, kultur etxean.

OLAZTI Gazte agenda: Serigrafia.
18:00etan, Intxostiapunta gazte gunean.

LAKUNTZA Pasaiko Badia dokumentalaren proiektioa Xabier Otamendirekin.
19:00etan, kultur etxean.

ZINEMA

ALTSASU

ORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO NAGUSIAN

Eso que tú me das gaurkotasuneko film dokumentalaren emanaldia
Ostirala 27: 19:00
Igandea 29: 19:30

Stardo eta turbocat familiarreko filmaren emanaldia euskaraz
Igandea 29: 17:00

Parasite B&W version gaurkotasuneko film dokumentalaren emanaldia
Osteguna 3: 19:00

ORTIA KULTUR GUNEKO
ARETO TXIKIAN

Bi urte, lau hilabete eta egun bat zineforum film dokumentalaren emanaldia
Ostirala 27: 19:00
Igandea 29: 19:40

El palacio ideal zineforum film dokumentalaren emanaldia
Osteguna 3: 19:00

BAKAIKU Trikidantz taldearen kontzertua. Bizitzaz goxatu disko berriaren aurkezpena.
19:00etan, frontoian.

ALTSASU Yllanaren Mestrissimo ikuskizunaren emanaldia.
19:30ean, Iortia kultur gunean.

IGANDEA 29

ARAKIL Aralar zaindu dezagun Gasbidea hemendik ez. Gure altxorrek ezagutzeko Mendi Ibilaldia: Madotz - Oderitz - Mendukilo.
10:00etan, Madotzetik.

ALTSASU Euskaraldiaren doinuak: Burundar Txistulariak taldearen, Zangitu fanfarrearen eta trikitilarien kalejirak. **Amaitzeko, Altsasuko Bertso Eskola.**
12:00etatik 13:30era, herrian barna Foru plazan bukatzen.

LAKUNTZA Euskaraldia: ... nahi dugu Hitz eta jolas Bertso saio tematikoa. Bertsolariak: Erika Lagoma eta Julio Soto. Gai jartzailea: Imanol Artola 'Felix'.
12:30ean, kultur etxean.

ARBIZU Bizitza, zaintza eta zerbitzu publikoak lelopean giza kate ibiltaria.
13:00etan, medikuaren kontsultatik abiatuta.

ALTSASU Euskal presoak, Euskal Herrria elkarretaratzea.
20:00etan, plazan.

ASTELEHENA 30

ALTSASU Pentsio duinen aldeko kontzentrazioa.
12:00etan, Zumalakarregi plazan.

ASTEARTEA 1

ALTSASU Euskaraldia: Xabier Artiedaren **Txor Txor** bakarriketa umoretsua.
19:00etan, Iortia kultur gunean.

ASTEAZKENA 2

ETXARRI ARANATZ ETA ALTSASU Osasun etxea zaindu! Nafarroako Osasun Plataformaren elkarretaratzea.
11:00etan, osasun etxearen aurrean.

ETXARRI ARANATZ Olentzero, nora zoaz? Oier Araolaza antropologoaren hitzaldia. Aforo murriztua dagoenez aurretik gonbidapena eskatu behar da
berdintasuna@sakana-mank.eus.
18:00etan, kultur etxean.

OSTEGUNA 3

ETXARRI ARANATZ Etxarri Aranazko Abesbatzaren 50. urteurrena ospatzeko erakusketaren irekiera ekitaldia.
17:00etan, Maiza kaleko 60. zenbakian.

ALTSASU Jarleku teatro konpainiaren Etxerik txikiena antzezlana.
17:00etan, Iortia kultur gunean.

BAZKIDE ZOZKETA
SARIDUNAK:

1. M. KARMEN LOPEZ DE GOIKOETXEA GOIKOETXEA (Urdiain)
2. UNAI BOBILLO BRAVO (Altsasu)
3. MARTA OTXOAERRARTE EDORTA (Olazti)
4. IDOIA LOBAN MUNDIÑANO (Etxarri A.)

AZAROKO SARIAK

1. SARIA: EKAINBERRIKO KOBAZULOAK: 2 sarrera
ARTAZAKO KANPINA: %10eko deskontua
LACTURALE: Esneki lotea
GAZTEZULO: 3 hilbaetaz doan

2., 3. ETA 4. SARIAK: DONOSTIAKO AQUARIUMA: 2 sarrera
ARTAZAKO KANPINA: %10eko deskontua
LACTURALE: Esneki lotea
GAZTEZULO: 3 hilbaetaz doan



DEKOVEN NAVARRA
CARPINTERÍA DE P.V.C.

info@dekovenavarra.com
www.dekovenavarra.com
Ibarrea industrialdea, 9 pabiloia · ALTSASU
Telf./Faxa: 948 468 360 · Telefono mugikorra: 690 641 860



IRAGARKI SAILKATUAK

LEHIAKETA

Nafarroa Saltsa Berdean Errezeta lehiaketa: Erosi produktuak NNPEK sareko denda ekologiko batean, prestatu errezeta bat, egiozu argazki bat eta bidali email bidez cpaen@cpaen.org helbidera produktua erosi duzun denda adieraziz. Abenduaren 15ean amaitzen da epea. Sariak, zure denda ekologikoan gastatzeko: 150 euro (urrezko errezeta), 100 euro (zilarrezko errezeta) eta 50 euro (bronzeko errezeta). Non erosi ditzakezu osagaiak? <https://navarraecologica.org/es/puntos-de-venta> webgunean agertzen diren dendetan.

Kaixomaitia.eus Kontaketa Erotikoen Lehiaketa: Elkar argitalebkearen babesarekin, 18 urtekin gora dituzten herritarrek hartu ahaliko dute parte. Lanek 6000 eta 20000 karaktere bitarteko luzera artean, euskaraz eta argitaratu gabeak. [Kaixomaitia.eus](http://kaixomaitia.eus) web orrialdera helarazi behar dira (izen abizenak, posta elektronikoa eta tfnoa zehaztuz). Epea 2020ko abenduaren 21ean amaitzen da. Irabazleak 1000 euro, bigarren sailkatuak 500 euro eta hirugarrenak 250 euro.

Atsotitz argazki Lehiaketa: parte hartzaileek atsotitz bat irudi batean txertatuta aurkeztu behar dute. Sormena ere landu nahi denez, esaera berriak sortzeko aukera

dagio. Gehienez 3 aurkeztu daitezke. Abenduaren 31 baino lehen hona bidali: 656 303 767 edo . Bi taldek bozkatzeko dute: batetik, irudigintza eta euskara arloko 5 epai-mahaikidez osatutako taldeak, eta bestetik nahi duten guztiak Telegramen talde honetan bozkatzeko aukera dute: urtarrilaren 5etik 31ra. Emaiza otsailaren 10ean, saria 100 euro. Informazio gehiago eta antolatzaileen webgunetan.

OHARRAK

Banda zabalari buruzko gidaren aurkezpen hitzaldiak: Cederna-Garalurrek Nafarroako Mendialdeko toki erakundeendako eta herritarrendako banda zabalari buruzko gida bat egin du. Garalurrek gida aurkezteko lau hitzaldi antolatu ditu, pandemia egoeragatik online izanzen direnak: abenduaren 10ean, ostegunean, 09:30etik 11:00etara edo 18:00etik 19:30era; abenduaren 15ean, asteartean, 09:30etik 11:00etara eta abenduaren 16an, asteazkenean, 18:00etik 19:30era. Interesdunek ondorengo inprimaki horren bidez eman dezakete izena, linean: <https://forms.gle/19vF87dfQisTEp8J9>. Doakoak dira eta gaztelaniaz. Lorea Jamar Garalurreko IKT teknikariak moderatuko ditu <https://meet.jit.si/Cederna-Garalur> bidez emanen dira saioak.

Eguberritako Aisiaz Bizi programa: Altsasuko Txantxari udal ludoteka abenduaren 23, 24, 28, 28, 30 eta 31n eta ilbeltzaren 4, 5, 7 eta 8an zabalik izanen da, lana eta familia bizitza bateragarri egin ahal izateko. Programa horretan haurrak izena eman nahi duten gurasoek abenduaren 1era arte eman daitezke izena. 3 eta 12 urte arteko (2008 eta 2017 artean jaioak) umeak hartuko dituzte. Bi orduz daude: 08:30etik 13:30era eta 11:00etik 13:30era. Aurreko ordutegiarekin plazak betetzen ez badira zabalduko da bigarren aukera hori soilik. Izena emateko 012 edo 948 012 012 telefonora hots egin edo www.altsasu.eus web orrian. Programan onartuak izateko udal ludotekak baremazioa du eta familia ereduaren arabera puntuak ematen dira. Matrikula errentaren arabera ordaindu beharko da. Pandemiagatik 12 haur hartuko dira bakarrik eta bi begiralerekin egonen dira. Ezarritako osasun protokoloa bete beharko dute parte hartzaileak.

Intxostiapuntako ordutegiak: Gaztegunea astelehenetik ostegunera, igande eta jaiegunetan 17:00etik 21:00etara, ostiral eta larunbatetan 17:00etik 22:00etara, ekintza berezietan 17:00etik 01:00etara. Informazio gunea astelehenetik ostiralera 07:30tik 15:00etara eta asteazkenean 07:30tik 12:00etara eta 17:00etik 20:00etara. Tfnoak 948 564 785 / 608 617 778, inxostiapunta@altsasu.net + gazteria@altsasu.net.

iragarki@guaixe.eus
www.iragarkilaburak.eus

Nabarmendu zure iragarkia

Modulo handia:
24,20 euro
948 564 275

IRAGARKIA JARTZEKO:

948 564 275

IRAGARKI@GUAIXE.EUSWWW.GUAIXE.EUS/IRAGARKIAK

- Asteazkeneko 13:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- GUAIXEek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzukizunik.

ORDAINTZEKO ATALAK:

- Etxebizitza Saldu/Errentan.
- Lokalak Saldu/Errentan.
- Irakaskuntza ("partikularrak") eman.
- Salmentak, erosketak eta trukeak.
- Iragarkiak Guaixe paperean eta guaixe.eus-en argitaratuko dira.
- Iragarki laburrak: 3 euro aste bakoitzeko (BEZ barne).
- Epea: aste bereko asteazkeneko 13:00ra arte.

DUELA 25 URTE...



Harri lubeta berria Irañetan

Irintarrek aspaldi sumatzen zuten Arakil ubeldearen ertzean harri lubeta bat egiteko premia. Arakil ibaia herriaren ipar-mendebaldean errebueltatzen da. Euri asko egiten zuenetan ibaia hazi eta herriaren zutuen lau etxeren atzeko aldeko lurrak eramaten zituen urak. Arriskua ikusita lanak egiten hasi ziren. Ordurako Irañetan beste bi harri lubeta eginak zeuden. Bata larre bat babesteko eta bestea bide bat babesteko.

JAIOTZAK

- **Mattin Sandoval Gonzalez**, azaroaren 15ean Irurtzunen
- **Oliver Molnar**, azaroaren 18an Iturmendin

HERIOTZAK

- **Maria Angeles San Roman San Miguel**, azaroaren 21ean Olaztin

INFORMAZIO HAU EPAITEGIETAN ETA UDALETAN JASOTZEN DA. AGERTU NAHI EZ DUENAK, HAN JAKINARAZI DEZALA.

Jarri zure iragarki laburra!


948 56 42 75
iragarki@guaixe.eus
www.guaixe.eus/iragarkiak



ESKELAK JARTZEKO: 948 56 42 75

edo.eskelak@guaixe.eus

- ▶ Eskelen tarifak: 50,82 € / 96,80€ / 130,68 € prezio hauek BEZa barne dute.
- ▶ Bazkideek % 10eko deskontua dute.
- ▶ Eskelak jasotzeko azken eguna: Osteguna goizeko 11:00k baino lehen.



IZARRA

HEMEN, ZURE ONDOAN
AQUÍ, A TU LADO

«Bizitzan badira une batzuk
zeinetan norbait
ondoan behar dugun»

BEILATOKIAK

ALTSASU ETXARRI ARANATZ
Santa Cruz, 6 Nagusia, 2

948 05 90 90 · www.izarratanatorio.com

IRACHE
tanatorioak

Tanatorioak: Altsasu – Irurtzun – Lekunberri – Betelu – Leitza

“Betidanik”

- ☎ 948 19 70 70
- 🐦 @Grupolrache
- 📘 Grupolrache
- 🌐 www.tanatoriosirache.es



Fermin Azkargorta, Jokin Bereziartu, Joseba Galarza eta Javi Gasanz asteazkenean Dantzalekuko pistan, gazte taldearen lehen entrenamendu egunean. UTZITAKOIA

Maidar Betelu ALTSASU / SAKANA

Asteazken arratsaldean 30 gazte baino gehiago bildu ziren Dantzalekuko atletismo pistetan. Fermin Azkargorta monitorea eta Javi Gasanz, Jokin Bereziartu eta Joseba Galarza laguntzaileek egin zieten harrera. Dantzaleku Sakana Atletismo Klubak antolatuta, 16 urtetik gorako gazteei atletismoan eta mendi lasterketetan formazioa eman nahi diete. Eta asteazkenean bertan hasi ziren lanean, pistetan eta inguruko basoetan.

Hutsunea bete

Hutsune bat betetzeko sortu da taldea. "16 urtetik gorakoendako atletismoan eta mendi lasterketetan ez zegoen talderik ez formaziorik, eta hutsune hori betetzeko Dantzaleku Sakanako talde bat sortu nahi dugu 16 urtetik gorakoekin. Fermin Azkargorta monitorea izango da, atletismo irakasle izateko titulua ateratzen ari delako. Ferminen atletismoa landuko du gehiago, Dantzalekuko pistan. Eta Javi Gasanz eta ni mendiko taldean egongo gara gehiago" azaldu du Jokin Bereziartua mendi korrikalariak. Hirurak egon dira taldea sortzeko prozesuan, eta Joseba Galarza korrikalari iturmendiarrak ere laguntzaileetako bat izango da.

Atletismoa, ia aukera bakarra

COVID-19 pandemia garaian, kontaktu zuzena eskatzen duten kirol askok mugak dituzte. Aldiz,

30 gazte baino gehiago korrika

ATLETISMOA / MENDI LASTERKETAK Asteazkenean hasi ziren Dantzaleku Sakana Atletismo Klubak 16 urtetik gorako gazteendako antolatutako atletismo eta mendi lasterketa entrenamenduak. Azkargorta, Gasanz, Bereziartu eta Galarza dira arduradunak

atletismoak ez du kontaktu zuzena eskatzen, eta korrika egitea egun egin daitekeen kirol bakarraren bat da. Dantzaleku Sakana Atletismo Klubak hurrendako formazioa eskaintzen du, hurrendako atletismo eskola du, baina helduendako ez. Norbera bere kabuz aritzen da. Bestalde, Sakanako Mankomunitateak Sakanako Emakumeen Atletismo Eskola antolatzen du, 18 urtetik gorako emakumeendako. Atletismoan sartzea gehiago kosta zaie emakumeei, eta bere garaian emakumeei erraztasunak eta formazioa eskain-

"GAZTEENDAKO EZ ZEGOEN TALDERIK, ETA HUTSUNE HORI BETE NAHI IZAN DUGU" JOKIN BEREZIARTU

tzeko sortu zen taldea, arrakasta duena. Ostiraletan trebatzen dira Dantzalekun, Andoni Jaka Irurtzunekin.

Taldean "edozeinek du tokia"

16 urtetik gorako gazteen hutsune hori betetzeko gazteen entrenamendu taldea antolatzea otu zitzaion Azkargortari, Gasanzi, Bereziarturi eta Galarzari. "Berdin digu neska edo mutila izan, taldean edozeinek du tokia. 16 urtetik gorakoen artean dagoen hutsunea bete nahi dugu, bestela hor bukatzen baita atletismoa. Nahi duguna da talde bat sortzea" azaldu du Fermin Azkargortak.

Fermin Azkargortak zainetan darama atletismoa. "Leku gutxiatik pasa naiz (kar, kar...). Txikitatik atletismoa egin dut. Dantzaleku Sakanan hasi nintzen atletismoan trebatzen. Atletismoarekin batera Sakanako Tri-

tloi Taldean ibili nintzen, 3 urte inguru eta mendi lasterketak ere egin izan ditut. Atletismoan, Dantzalekun hasi baina Pamplo- na Atletico taldera egin nuen salto gero. Bertan nabil gaur egun, baina datorren urtean, 2021ean, Dantzaleku Sakanara bueltatuko naiz berriro. Gogotsu nago" azaldu du Azkargortak. 20 urteko iturmendiarrak irakasle ikasketekin ari da, baina aldi berean atletismo entrenatzaile izateko formazioa jasotzen du. Gradu erdiko ikasketak dira; aurreko urtean lehenengo urtea egin zuen eta aurtengo 2. urtea, eta

"30 GAZTE BAINO GEHIAGO ANIMATU DIRA. SORPRESA IZAN DA, EZUSTEKO OSO ONA" FERMIN AZKARGORTA

beste maila bat dago, aurrerago egingo duena. Mendi lasterketen inguruan ere trebatzen ari da, bere kabuz, sarean topatzen dituen artikulu eta lanekin.

Arrakastatsua

16 urtetik gorako gazteak atletismoan eta mendi lasterketetan trebatzeko ekimenak sekulako arrakasta izan du. "Erantzuna bikaina izan da, espero baino askoz hobea. Taldea lanean hasiteko 10 gazte izena ematea oso positiboa izango zela uste genuen. Eta 30 gazte baino gehiagok eman dute izena. Sorpresa izan da, ezusteko oso ona. Oso pozik gaudu" azaldu du Azkargortak. Eurak gazteak dira, eta euren ingurukoak erakarri dituztela nabarmena da. "Ba ez dakit, egia esan. Bat-batean jende pila bat gerturatzen hasi da... ez dugu horretan pentsatu, baina izan daiteke, agian eragina izan du gu gazteak izatea" aipatu du Fermin Azkargortak.

Asteazkenean hasi ziren

Asteazkenean egin zuten lehen-dabiziko entrenamendua. Dantzalekuko pistetan dute hitzordua. Asteazkenetan, 17:00etatik 19:00etara, eta larunbatetan 11:00etatik 13:00etara. "Norbaitek animatu nahi badu atek zabalik dauzka, taldean sar daiteke. Jar dadila gurekin harremanetan lasai asko" dio Azkargortak. Berak atletismoa landuko du gehiago, pistan, eta Javi Gasanzek eta Jokin Bereziartuk mendiko ardurak hartuko dute. Joseba Galarza laguntzaile izanen dute. Maiatzeraino iraunen du ikastaroak. Maila ezberdinetako gazteak daudenez, mailaren arabera osatuko dituzte taldeak. "Ez da berdin korrikari hasi berria den norbait edo 5 urte korrika daramatzana. Taldeak nahiko erraz antolatuko ditugula uste dut" gaineratu du Ferminen.

Taldea sortu

Atletismoaren inguruko formazioa eskaintzeaz gain, Dantzaleku Sakana taldea indartu nahi dute, gazteen taldea sortu, etorkizunean antolatu ahal diren lasterketetan aritu ahal izateko. "Taldea sortzea sekulakoa litzateke. Momentuz trebatzea, hori da egin beharrekoa. Jakina, izena eman dutenei Dantzaleku Sakana Atletismo Klubean izena emateko aukera dutela aipatuko diegu. Urtero 18 euroko kuota

ordaintzen da. Taldekide izatera animatuko ditugu, baina hori euren aukera izango da, ez ditugu behartuko. Momentuz, taldea abiatzea, hori da dugun erronka" nabarmendu du monitorea. Dantzaleku Sakana Atletismo Klubeko beteranoak pozik daude gazteek taldeari eta atletismoari emandako bultzadarekin.

Dantzalekuko pistak mantentze lanak behar dituela adierazi dute Dantzaleku Sakana Atletismo Klubak bere sare sozialetan pistako mantentze lanak egitea eskatu dio Altsasuko Udalarari. Pista berritzeko lanak 2010ean egin ziren, futbol zelaietan belar artifiziala jartzeko lanekin eta Dantzalekuko kirol gunea behar bezala jartzeko lanekin batera. Lan guztiek 963.777 euroko aurrekontua izan zuten eta La Gueña enpresak egin zituen. Lanak Enplegurako Toki Inbertsioaren Estatu funtsarekin eta Espainiar Estatu aurrekontuetatik finantzatu ziren, NaBai-ren zuzen-keta bat onartu eta aurrekontuetan jaso eta gero. Baina urteak pasa, kortozko pistako zenbait zatitan belarra hasi da jaiotzen eta pistako zenbait tokitan ere arrakalak eta zartadurak daude, bestelako hausturekin batera. Dantzaleku Sakana klubak mantentze lanak lehenbailehen egin ditzala eska dio Altsasuko Udalarari. "Pistak zoragarriak dira entrenatzeko, baina urteak pasa ahala pista apurtzen hasi da eta Udalak mantentze lanak egin beharko lituzke. Jende askok erabiltzen ditu pistak korrika egiteko eta entrenatzeko. Mugimendua dago, eta pistak ongi mantendu behar dira. Ez badira zaintzen eta mantentzen, geroz eta okerragoa izango da konponetzea" dio Azkargortak.



Igor Arrieta taldea eta koloreak aldatuko ditu: Sakana Group-Aralarren berdetik Lizarteren arrosara. SAKANA GROUP-ARALAR

Afizionatuetan hasteko gogotsu dago Igor Arrieta

TXIRRINDULARITZA Sakana Group-Aralar taldean trebatu den Igor Arrieta Lizarraga txirrindulari uharte arakildarrak Lizarte taldearekin debutatuko du afizionatuen mailan. Maila berriari "errespetua" diola aitortu du baina "hasteko gogotsu" dagoela

Maidar Betelu Ganboa UHARTE ARAKIL Igor Arrieta Lizarraga txirrindulari uharte arakildarrak Lizarte taldea aukeratu du afizionatuen mailara salto egiteko. "Hainbat aukera izan ditut, baina gehien gustatu zitzaidana Lizarte izan zen eta jada gogotsu nago hasteko" azaldu du Igor Arrieta. Aitaren gomendioak jarraitu omen zituen galdetuta, Igorrek dio aitak taldeei buruz bere iritzia eman ziola, "bainanik hartu nuen erabakia". Argi eta garbi.

Galibier klubeko Juanjo Oroz kirol zuzendariak ongi etorri beroa egin dio uharte arakildarri - Galibier klubeko taldeak dira afizionatuen Lizarte taldea

eta Kern Pharma talde profesionala-. "Txirrindulari fina da, sekulako proiektzioa du eta mutil jatorra da, oso umila eta lan egiteko gogoz dagoena" azaldu du Orozek. Orozek esandakoaren inguruan zer deritzon galdetuta, irribarre egiten du uhartearrak. "Beno, ez dakit zer esan... ea orain arte bezala jarraitzen du dan eta taldera egokitzen naizen".

Sakana Group-Aralar taldeko kolore berde fluorra urte akaberran armairuan gorde, eta Lizarte taldeko maillot arrosa fluorra jantziko du 2021ean Igorrek. Bere kabuz ari da entrenatzen, ez daki noiz hasiko den Lizarterekin entrenatzen. "Aurtengo denboraldia arraroa ari da izaten,

pandemiarengatik, eta ez dakit abenduan kontzentrazioaren egiteko aukera izango dugun. Ahal izanez gero, hor hasiko ginateke lanean" azaldu du.

Jubenilen balorazio ona

Jubenilen maila modu ezin hobean agurtu du Igor Arrieta. Espainiako selekzioarekin Europako Txapelketetan aritu zen, ongi, eta Espainiako Erlojupeko txapeldunordea izan da. Horretaz gain, Euskadiko txapelduna izan da errepidean, Nafarroako txapelduna bai erlojupekoan eta baita errepidean ere, eta Lacturale Trofeoa eta Indurain Anaiak Saria irabazi ditu, besteak beste. "Denboraldia

oso ona izan da, egia esan. Atzera begira jarrita, izan ditudan emaitzekin pozik nago, baina bereziki lasterketetan aritzeko aukera izateagatik nago pozik. Pandemia dela eta, Estatuko zenbait tokitan ezin izan dute lasterketetan aritu, baina hemen, Euskal Herrian, gutxienik lasterketetan aritzeko zortea izan dugu eta hori eskertzekoa da" nabarmendu du Arrieta.

Jubeniletatik afizionatuen mailara dagoen saltoa sekulakoa dela diote adituek, akaso txirrindularitzan dagoen saltorik handienetakoa. "Afizionatuen mailari errespetua diot, jakina. Azkenean maila berria da, gogortu egiten da distantzia gehiago egin behar delako eta beste hainbat faktorearengatik. Baina hasteko gogotsu nago, maila berrian nola moldatzen naizen ikusteko" aitortu du Arrieta. Taldekide berrietako batzuk ezagutzen ditu, beste batzuk ez, ordea. "Askorekin azken urtean lasterketetan ibili naiz, baina kanpokoak direnak ez ditut ezagutzen" aipatu du.

Igorrek batera, Sakanako klubetako beste zenbait txirrindulari ere pasako dira afizionatuetara. "Oraindik ez dakit ziur, baina uste dut nahikotxo pasako garela. Talde ezberdinetakoak izan gaitezke, baina entrenatzen batera ibiliko gara. Sakandarrak gure artean ongi konpontzen gara" dio.

Pandemia dela eta datorren denboraldiak zer ekarriko duen ez omen dago argi. "Denok nahiko genuke urte normalago bat izatea, baina zaila izango da. Nire ustez, aurtengo egindako lasterketen antzekoak izango dira: maskarak, distantzia... Ea proba gehiago jokatu ahal diren" espero du.



Pistan belarra ateratzen hasi da. UTZITAKOIA

Jon Irañeta, Iban Resano eta Goizeder Beltza lanera

HERRI KIROLAK Igandean, Bastidan, Urrezko Aizkolarien eta Harri Jasotzen jardunaldiak eta finalak dituzte jokoan

Bastidak Egur Sportek antolatutako Urrezko Aizkolarien Euskadiko 2. eta 3. mailako Aizkolaritza Txapelketako finalak eta Binakako Harri Jasotze Txapelketako 9. eta 10. jardunaldiak hartuko ditu igandean, 12:00etan.

Ateak itxita jokatuko dira, eta ETB1ek zuzenean eskainiko ditu.

Binakako Harri Jasotze Txapelketa-Gruas Iru Sariko 9. jardunaldian Urdax Magunazelaia abadiñotarra eta Jon Irañeta egarretarra ariko dira lanean.

Ondoko harriekin egingo dituzte saioak: 175 kiloko koadroa, 138 kiloko kubikoa, 100 kiloko zilindro zaharra eta 100 kiloko bola. Azaroaren 7an Nafarroako Harri Jasotze Txapelketa irabazi zuen harri jasotzaile arakildarrak, eta Nafarroako txapeldunak bolada onari jarraipena eman nahi dio Bastidan.

Urrezko Aizkolarien Euskadiko 3. mailako finalean 8 aizkolaririk lehiatuko dira, tartean Goizeder Beltza etxarriarra. Txomin Amundarain, Julen Olano, Al-

varo Garcia, Unai Otaegi, Luis Polanco, Julen Aranberri "Elo-riaga II." eta Ibai Soroa izanen ditu aurkari Beltzak, eta 3 kana erdiko eta 60 ontzako 2 enbor erdibitu beharko dituzte. Euskadiko 2. mailako finalean, aldiz, 7 aizkolaririk lehiatuko dira, sakan-dar bakarra: Iban Resano dorrobarra. Hodei Ezpeleta, Luis Mari Txapartegi, Xabier Zaldua, Joxean Etxeberria, Oier Kañameres IV. eta Oihan Larretxea izanen ditu arerio. 2 kana erdiko, 260 ontzako eta 272 ontzako mozterakoan.

Egunerokotasunaren umorea Euskaraldian

Euskaraldiaren harira 'Txor Txor' bakarriketa egiten ari da Xabier Artieda aktore etxarriarra Euskal Herriko txoko askotan. Asteartean, abenduaren 1ean, Altsasuko Iortia kultur gunean egonen da, Sakanako zenbait herritan egon ondoren

Erkuden Ruiz Barroso ETXARRI A.

Txor Txor bakarriketa Euskaraldiaren barruan dagoen ekimen bat da, Xabier Artieda aktoreak azaldu bezala. Hiru monologistak egiten dute: Artiedak, Nerea Arriolak eta Beatriz Egizabalek. "Euskaraldirik lan hori egitea proposatu ziguten. Aurtengo edizioaren argibideekin txosten bat pasatu ziguten, eta umoreta eramatea eskatu ziguten". Konfinamenduaren erdialdean zeuden eta bideo deien bidez hiru aktoreak dena prestatzen hasi ziren. "Gure artean txistek nora eramana eta antolatzen hasi ginen, baina gero bakoitzak bere bakarriketa egin du". Aktore bakoitzak bere alderdira eta ibilbide artistikora eramana du ikuskizuna. Emanaldi asko egiten ari da Euskal Herria osoan, eta Sakanan hainbat geldialdi egin ditu: Etxarri Aranatz, Bakaiku, Lakuntza... Abenduaren 1ean, asteartean, 19:00etan, Altsasuko Iortia kultur gunean izanen da. Sarrera doan da, baina aurretik gonbidapena hartu behar da.

Umorea egiteko formula perfektua ez da existitzen. "Zehazki ez dakizu inoiz". Artiedak jarraitzen duen estrategia gertaerak eta egoerak absurdora eta muturretara eramatea da. "Nik hor aurkitzen dut komedia. Beste batek beste modu bat erabili dezake. Esaterako, informazio asko dauka eta informazio hori joko komikoak egiteko erabiltzen du". Artistaren lanaren arabera da umorea sortzea. Hala ere, "egoera bat absurdora eramatea" asko errepikatzen den formula da. "Jendeak bat egiten du egoera horrekin, eta hortik komedia sortzen da".

Bakarriketak

"Esperientzia nahiko berria da niretako bakarriketa bat, hizketan, egitea". Artieda agertokian bakarrik antzeztera ohituta dago, izan ere, *Everybody needs... heroes!*



Xabier Artieda 'Txor Txor' bakarriketan Lakuntzako kultur etxean.

bezala antzezlanetan bakarrik aritzen da. Baina kasu horretan antzerki fisikoa egiten du. Mugimenduaren bidez adierazten du, "beste modu batera eramanda". Beraz, bakarriketa egitea "erronka bat" iruditzen zaitzaion hasieran. "Bueltak ematen egon nintzen emanaldiak zer behar zuen jakiteko". Emanaldiak egiten joan den heinean, lanak zer eskatzen zion ikusi zuen: "Publikoarekin noiz konektatzen nuen eta noiz galtzen nituen... fintzen joan naiz". Dagoeneko "harrapatu" duela uste du etxarriarrak. "Sekretua zein den. Ez dakit. Filtro asko daude. Tipula bat

bezala. Nik erabiltzen dudana ikusleari begiratzeko da, konektatzen saiatzea eta handikerietan ez erortzea. Era umil batetik egitea". Bakarriketan "gertutasuna" bilatzen du.

Publikoaren jarrera ezinbestekoa da. "Emanaldi hauetan eta emanaldi mota guztietan". Antzezlearen eta publikoaren artean sortzen den komunikazioa ikuskizunaren % 60 edo 70 dela azaldu du aktoreak. "Ni taularen gainean nago, baina behean, ikusten ari dena ere oso garrantzitsua da. Komunikazioa sortzen da". Publikoa eta sortzen den komunikazio hori, gainera, mota

askotakoa izan daiteke, eta *Txor Txor* bakarriketarekin egiten ari den biran herrien arabera hainbat publiko mota ezagutzen ari da: "Herri batzuetan oso lotsatiak dira eta beren parte hartzeko modua lasaiagoa da. Beste batzuetan, berehala hasten dira txaloka edo barrez, gehiago ematen dute hasieratik". Bakoitza bere modura, baina "denak ongi" daudela esan du Artiedak. Modu honetan ere, publikoaren aniztasunari esker, lana garatzen doa. "Lan bat ez da inoiz tinko gelditzen. Etengabeko aldaketa bat egiten du. Hasieran egiten nuenak eta orain egiten dudanak ez du zerikusirik".

Pandemia

"Garai bereziak dira". Pandemiatik ikusleek maskarak jantzi behar dituzte, pertsonen arteko

distantzia mantendu behar da eta beste hainbat neurri jarraitu behar dira. Baina "kultura segurua dela" aldarrikatu du etxarriarrak. Maskarekin "informazio falta" dutela esan du. "Maskarak ikuslea despersonalizatzen du". Txaloak eta barreak entzuten direla adierazi du Artiedak. "Horiek entzuten eta nabaritzen ditugu. Norbait irribarretsua dagoenean ere nabaritzen da".

Konfinamendua "niretzat" baliatu nahi zuen aktoreak: "Pentsatzen nuen lasai egongo nintzela eta nire barnera begiratzeko eta nire baitako gauzak egiteko aprobetxatuko nuela". Azkenean, ezin izan zen gelditu egon eta *Txor Txor* bakarriketa presatu ez ezik, antzezlan bat idatzi zuen eta musika talde bat ere sortu nuen, gitarrista batekin.



BAZTERRETIK

MIKEL MAIZA

Komikiak zineman

Komikigintza eta zinema betidanik egon dira lotuta. Zinemak eta komikiek hizkuntza bera partekatzen dute: narratiba bisuala ("hizkuntza zinematografikoa" esaten diote batzuek). Hizkuntza honen bitartez bi diziplinek ideiak, sentsazioak, sentimenduak transmititzen dizkigute. Irudien bitartez eta irudien bitartez besterik ez, inoiz kontatu den kondaira epikoena errealitate bihurtu dezakegu. Ikuslea zirrarratu eta mila unibertso bisitatu besaulkitik mugitu gabe.

Honaino iritsi bazara badakit zein den zuen galdera: "Mikel, ze belar mota hartu duzu gaur gosaltzeko? Gehiegizkoa da. Zu zara aditua, baina komikiek ez dirudite hain zirraragarriak". Bada azalpen bat honentzat. Zinemak komikiak ez dauzkan osagai oso-oso boteretsu bi ditu: soinua eta mugimendua. Hala ere, komikiak badu zinematik ez duen beste elementu bat kontraeraso moduan: formatua. Inoiz egin den edozein pelikula formatu bera izan du: laukizuzena. Komikiek, bestalde, portada laukizuzenak dituzte... Baina haren barruan diren orriek

konposaketa ezberdinak dituzte eta ez dira 2 berdin egongo inoiz!! Ez dago mugarik, marraz edo idatz daitekeenik.

Hau irakurri ostean komiki eta zinemaren artean lehia dagoela pentsa genezake, baina ene iritzian guztiz kontrakoa da: Zinema eta komikia ez dira etsaiak, pintxopotea elkarrekin ospatzen duten kuadrillako bi lagun baizik. Super heroi komikirik ez balego ez genuke jakingo nor arraio den Batman. Japoniarrek komiki ospetsu, eta ez hain ospetsu guztiak marrazki bizidun bihurtzeko obsesioa ez balute, gaur egun *Dragoi Bola* ez luke gutako inork ezagutuko.

Jodorowskyren *Dune* filma bertan behera utzi ez balitz, Jodorowsky berak ez zuen handik urte gutxira *Incal* komikia idatziko -bere hitzetan, film proiektuak porrot egitean, filmaren gidoia komiki bihurtuko zuela erabaki zuen-.

Herriko liburutegira joan eta komiki bat ikusten duzun hurrengoan, izan buruan hau. Eman aukera bat komikiari, interneten puntuazio baxua zuen pelikula harri eman zenion bezala.



Munia El Marhoum Iruretagoiena lakuntzarra. UTZITAKOIA

"Sorpresa hartu genuen saria irabazterakoan"

MUNIA EL MARHOUM IRURETAGOIENA IKUS ENTZUNEZKO IKASLEA

Emeki taldearen 'Tentuz' film laburra 16. Kameratoiaren bigarren irabazlea izan da. Taldea Maitane Perezek, Jon Olibaresek, Ane Alvarezek eta Munia El Marhoumek osatzen dute

Erkuden Ruiz Barroso LAKUNTZA

Munia El Marhoum Iruretagoiena lakuntzarrak aurtengo Kameratoiaren edizioan parte hartu du Emeki bere taldearekin. Film laburren lehiaketara 26 lan aurkeztu ziren, eta lakuntzarraren taldeak bigarren saria eskuratu zuen; bigarren ez. Ikus entzunezko komunikazioa graduako laugarren mailan dago El Marhoum eta Gradu Amaierako Lanerako zerbait "potentea" egitea du buruan.

Zer da Kameratoia?

Euskal Zine Bileraren barruan antolatzen duten ikus entzunezko rallye bat da. Lekeition egiten da, baina aurten egoeragatik online egin da. Ostiral arratsaldean oinarri eta baldintza batzuk jartzen dizkigute, gai bat ematen digute eta igandeko 12:00ak baino lehen film labur bat entregatu behar duzu. Aurten gutxienez Lekeitioko hizkeran hiru hitz agertu behar ziren, gaia denboraren eta argazki bat atera behar

zen, eta gehienez 3 minutu eta erdiko bideoa izan zitekeen.

Zuen lehenengo parte hartzea zen?

Ez. Aurreko urtean ere aurkeztu ginen, Emeki filmsekin, beste partaide batzuekin. Bik errepikatu dugu aurten. Irakasgai bateko irakasle batek esan zigun lehiaketa batzuetara aurkeztu behar ginela, eta haien artean Kameratoia zegoen. Lehenengo urtean ere bigarren saria irabazi genuen. Ez genuen pentsatzen. Aurten ezta ere. Sorpresa handia

eraman genuen. Lehenengo aldia zen aurkeztu ginela, eta saria irabazi genuela esan zigutenean... sinesgaitza izan zen.

Lekeition egin ohi da lehiaketa, baina aurten online egin da. Zer desberdintasun nabaritu dituzue?

Iaz edizioaren zatia errazagoa izan zen. Denok batera geunden. Hiru joan ginen, Izaro, Jon eta ni neu, eta bertan egin genuen dena. Edizioa ere denok batera ordenagailu batean egin genuen, eta gure arteko komunikazioa errazagoa zen. Aurten 22:00etarako etxean egon behar ginenez, bakoitza bere etxera joan eta Maitanek bere etxean edizioaren zati bat egin zuen, gero Jonek pasatu zion eta audioa egin zuen eta gero Aneri eta niri, pisukideak garel, pasatu zigun irudiaren postproduzioa egiteko. Zatika egin behar izan genuen, baina lauron artean. Hori izan zen zailena. Grabatzerako orduan ere neurriak mantendu behar izatea. Ez genuen maskarak ateratzea nahi, kameraren aurrean distantzia mantendu behar zuten agertzen diren bi neskak. Baina ondo joan zaigu. Gustura aritu gara.

36 ordutan produkzio batean hila-beteak eta urteak kostatzen den lan bat egin behar duzue. Nolako da prozesua?

Ostiralean gaia eman zigutenean pixka bat jokoz kanpo utzi gintuzten. Denbora zen gaia, eta gai oso zabala da. Alde askotatik jorratu daiteke. Pare bat ordu egon ginen ez genekiela zer egin eta nondik jo. Azkenean, nik lehenengo urtean beste gauza baterako egin nuen gidoi txiki bat neukan eta taldekideei pasa nien. Pentsatu genuen hori oinarri bezala hartzea eta moldatzea. Oinarria da; hasierakoan bi neska koadro bat begirartzen agertzen dira. Moldatu genuen eta istorio berri bat egin genuen, argazki baten inguruan. Oinarriak eman zizkigutenetik goizeko ordu biak ingurura arte egon ginen gidoiak prestatzen; gidoi literario eta teknikoak, eta hurrengo egunerako dena prest utzi behar genuen. Oso lo gutxi egiten da, hori egia da, baina esperientzia bat da.

Praktika hartzeko ongi etorriko zaizue, ezta?

Bai. Ikus entzunezko komunikazioaren graduan hirugarren mailara arte ez ditugu gauza asko egiten. Lehenengo eta bigarren mailak teorikoagoak edo dira. Hirugarren mailan irakasgai hau dugu, errealizazioa eta bat-batean gauza pila bat egiten hasten gara.

Tokietara joan behar dugu, lehiaketetara aurkeztu... Hauetan denbora mugatu bat dugu proiektua egiteko, eta denbora horren aurka lan egiten ikasten duzu. Normalean prozesu horiek hila-beteetako lanak dira, bakarrik garapena: aurreproduzioa, gero ekoizpena eta ondoren postproduzioa. Prozesu hori gutxienez gure gutxitzen da eta gure mailan egiten dugu. Gure ahalmena erakusteko aukera ematen digute.

Zergatik ikus entzunezko komunikazioa?

Betidanik gustatu izan zait komunikazioa, orokorrean. Teleberria txikitatik ikusten dut. Komunikazio arlo horretara beti lotuta egon naiz eta beti aurretiko jarrera hori izan dut. Ez nuen kazetaritza aukeratu, eta ikus entzunezko ikasketak egiten hasi nintzen, modu honetan kazetaritzaren arloan eta zinemaren arloan ibil nintekeela iruditzen zitzaidalako.

Ba al dituzu proiektu gehiago buruan?

Aurreko urteko Kameratoia baino lehen ez neukan ezer buruan. Baina horren ondoren publikatu ez diren gauzatxo batzuk egin ditut: dokumental bat, bideoklip bat... Orain Gradu Amaierako Lana pentsatzen ari naiz eta zerbait potentea egitea dut buruan. Espero dut hori zabaltzea. Profesionalki, kaketzen artean, ez dut asko zabaldu den ezer egin, Kameratoia izan ezik. ZineBi jaialdiko rallye batean parte hartu genuen ere.

Zein da egitea gustatzen zaizun lana?

Aurten batez ere konturatu naiz gidoiak idaztea gustatzen zaidala. Aurreko urtean ez neukan oso argi hori. Post-produkzioa ere asko gustatzen zait; edizioa eta argiaren post-produkzioa. Orokorrean, zati bakoitzak dauka bere xarma. Gidoiarekin zaudenean emozio berezi bat dauka. Buruan pantailan ikusiko dena irudikatzen dut. Grabatzea ere. **Zeintzuk dira zure erreferenteak?**

El retrato de una mujer en llamas filma ikusi nuenetik buruan izan dut. Urtarrilean ikusi nuen, eta ordutik erreferente izan dut. Kameratoiaren lanerako erreferenteetako bat izan da. Plano bat oso antzekoa da. Itxura naturalista edo errealista gustatzen zait. Nik sortutako istorioetan gehiago ikusten dut kamera eskuan eramatean sortzen den mugimendu hori; naturaltasun hori. Jendeak hurbiltasun hori nabaritu dezan.

11 GALDERA



Mariaje Perez eta Juanjo Otsoa, euren seme-alabekin, euren lorategia ixteko jarri duten atearen aurrean. UTZITAKOIA

"Gernika, ez genuen zalantzarik izan"

Ziordira joan, eta aho zabalik geratzen da jendea Juanjo Otsoak eta Mariaje Perezek etxeko lorategia ixteko jarri duten atearekin. "Jende askok atean argazkiak ateratzen dituela konturatu gara" diote. Eta ez da gutxiagorako

Maidar Betelu Ganboa ZIORDIA

1 Ate ikusgarria jarri duzue, arreta deitzen duena. Zuen etxeko atzealdea da, ezta?

Juanjo (J.): Lursail hau gure etxearen atzealdean zegoen. Lursaila erostea, hori izan da gure ilusia betidanik, etxeari lotuta lorategia izateko. Azkenean, joan den urtean erostea lortu genuen. Horrela, terraza handitu eta sukaldetik zuzenean lorategira ateratzen gara Lanak borobiltzeko, ate berezi bat jarri nahi genuen, gustuarekin egindakoa, herriko erdi-erdian baitago, tabernaren ondoan.

2 Zuen atean Gernika egon behar zela argi zenuten?

Mariaje (M.): Ideiak aztertzen geundela, egun batean Juanjok esan zuen: "eta Gernika jartzan badugu?" Biok elkarri begiratu eta zerbaitek klik egingo baligu bezala, argi ikusi genuen. Horrela hartu genuen Gernika jartzeko erabakia, eta ez genion buelta gehiagorik eman.

3 Nork egin du forjazko Gernika?

J.: Nik Araian lan egiten dut, oxiebaketa enpresa batean. Burdinazko piezak mozten ditugu, bezeroek eskatzen dizkiguten moduan. Komertziala naiz, baina bere garaian bulego teknikoan ere aritzen nintzen, marrazten. Gernika egiteko erabakia hartutakoan, lana fabrikaren egitea erabaki nuen. Marrazkia nik egin nuen, eskuz, bulego teknikoan lan egiten duen Alberto lankidearen laguntzarekin.

4 Eskuz? Egungo makinek eta ordenagailuek ez al dute irudia eskaneatzen eta zuzenean burnizko piezan mozten?

J.: Ordenagailuz koadroaren irudia sar dezakezu, gordinen, baina moztu nahi dituzun silueta horiek guztiak, eskuz marraztu behar dira. Lerroak, erradioak, arkuak... programan marrazten joan behar duzu. Ondoren, mozketa programak egindako marrazkia makinara pasako du, eta makinak berak egingen du mozketa burnizko piezan.

5 Marrazkia egiteak denbora asko eskatu zizun?

J.: Marrazkiak egiterakoan begiak pantailan utz ditzakezu, pantailan oso gertu egon behar duzulako, lerro oso txikiak baitira. Pantailara gerturatu eta aldendu, gerturatu eta aldendu... Ezin duzu lana segidan egin, oso nekeza delako. Pixka bat egin eta utzi egin behar duzu, gero bestetarte batean aritu... Ez dakit esaten zenbat denbora behar izan nuen. Ekain aldera moztu zuten pieza, mimo handiarekin. Makinari 2 ordu inguru kosta zitzaion, eta halako makinetarako hori denbora asko da.

6 Ondoren pieza atean muntatu zuten ezta?

M.: Bai. Atearen muntaia guztia Manuel Kasas ziordiarrek pentsatu eta egin du. Ate gidariduna, oinezkoen atea, ondoan dauden txapak, Gernika bertan txertatu... Lan handia egin du, gustu handiarekin. Zalantza genuen, Gernikaren atzealdean zerbait jarri ala ez, baina azkenean ez diogu

jarri, uste dugulako koadroa nahikoa ongi nabarmentzen dela.

7 Fabrikako lankideei Gernika nola geratu den gustatu zaie?

J.: Bai, prozesuan parte hartu duten guztiak asko gustatu zaie.

8 Eta herritarrei?

M.: Ez genion inori esan gure atea nola izango zen, eta udan Manuelek jarri zuenean, jende guztia txundituta geratu zen. Pandemiagatik orain ez dago herrian mugimendu handirik, baina tabernara etortzen den jendea gure atearen parean geratzen da, begira. Askok argazkiak ateratzen dituztela konturatu gara. Badirudi jendeari ere gustatzen zaiola. Zuek ere deitu gaituzue... (kar, kar).

9 Izan ere, Gernikak badu zerbait.

M.: Bai, Gernika berezia da. Bere historia du, bere xarma, bere sinbologia... Gauza askorengatik da berezia. Gernika barrenera iristen zaizu, eragiten dizu, begira geratzen zara... Gernika, ez genuen zalantzarik izan.

10 Atea nork egin dizuen galdetu al dizue inork?

J.: Bai, gure atea kopiatuko digutela esan izan digute (kar, kar). Arazorik ez.

11 Lanarekin kontentu zaudete?

M.: Oso pozik. Oso polita geratu da. Orain lorategia mugatzeko itxiturak egitea falta da. Manuel ari da horretan, eta hori ere oso ongi geratuko da.

ERAMAN ZURE PRODUKTUAK EDONORA

GUK BEHARREZKO DUZUN GUZTIA PRESTATUKO DIZUGU

EDALONTZIAK, POLTSAK, ONTZIAK, KUTXAK...

ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE



DISEINU GRAFIKOA
WEB DISEINUA
KOMUNIKAZIOA